

Urriaren 28an
URTEAN ZEHARREKO 30. IGANDEA

Agurra

Munduaren argia dugun Jesus Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Bataiatuon batzarrera bildu gara. Bataioko uretara ekarriak eta fedeez argituak izan ginenok Jesus Jauna aitortzen dugu gure bizitzaren askatzaile eta poz. Hau da argi bila dabilzanen batzarra, hau, ikusi nahi dutenen mahaia.

Damu-otoitza

Eska diezaiogun Kristori argi dezala gure bekatuaren iluna:

- Jesus Jauna, bihozbera eta errukitsua zarena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, on eginez igaro zinena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, inor galtzerik nahi ez duzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
handitu gugan sinesmena, itxaropena eta maitasuna;
eta zure agintzariak iristeko,
egizu, maita ditzagula zure aginduak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Itsu izateko modu asko dira... eta asko ikasiak dauzkagu nonbait! Jainkoaren Hitzak argitzen gaitu, argi-bideak urratzen ikasteko.

Lehenengo irakurgaia (Jr 31, 7-9)

Jeremias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Egin oihu pozaren pozez Jakobengatik, egin irrintzi, hiriburuarengatik; hots egin, goretsi eta esan: "Salbatu du Jaunak bere herria, Israelgo hondarra". Begira, iparraldetik ekarriko zaituztet, eta lurraren azken mugetatik bilduko. Herri handi bat dator: horien artean badiraitsuak ete herrenak, haurdunak eta haur eginak. Negarrez joan ziren, pozetan ekarriko ditut; oztoporik egingo ez duten bide zelaietatik; Aita izango naiz Israelentzat, eta Efraim izango da nire lehen- seme».

Erantzun-salmoa (Sal 125, 1-2ab. 2cd-3. 4-5. 6)

As - ko la - gun - du di - gu - zu, Jau - na. Hau -
xen da po - za guk dau - ka - gu - na!

Jaunak Siongo atxilotuak erakartzean,
bageunden amets antzean.
Orduan bete zitzaigun ahoa parrez,
gure mingaina gorazarrez. R/.



Atzerrietan, orduan, esan zuten:

«Jauna handikiro jokatua dute.»

Gurekin handikiro jokatu da Jauna:

Hau da poza daukaguna! R/.

Bihur ezazu, Jauna, gure zoria,

Negebeko erreka-urak beza.

Malkoz erein bazuten,

pozez bilduko dute. R/.

Haruntzakoan han zihoazen negarrez,

ereiteko gari-zorroa eramanez.

Pozik etorriko dira honuntzakoan,

garibalak eskuan. R/.

Bigarren irakurgaia (*Heb 5, 1-6*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Apaiz nagusia, gizonen artetik hartua, gizon-emakumeen alde jarria da, Jaungoikoari dagozkionetan, bekatuengatik emariak eta opariak eskaintzeko. Ezjakin eta okertuetan kupitzeko gauza da, bera ere argalkeriaz inguratua dagoenez gero. Eta horregatik, herriarentzat bezala, bere buruarentzat ere eskaini behar ditu opariak bekatuen orde. Ez du inork hartzen beretzat maila hori, Jaungoikoak deiturik baizik, Aaronek bezala.

Horrela Kristok ere, ez dio Berak eman bere buruari apaiz nagusi maila, baizik eta hitz hauek esan zizkionak: «Nire Seme zara Zu; Nik zaitut gaur Zu sortu»; edota beste batean Liburu Santuak dioen bezala: «Apaiz zara zu betierean, Melkisedeken sailean».

Aleluia (2 Tm 1, 10b)

Jesu Kristo gure Salbatzaileak hondatu du heriotza,
eta argitara atera bizia berri onaren bidez. R/.

Ebanjelioa (Mk 10, 46b-52)**Homiliarako argibideak***Ikusten hasteko bidea*

Zeinek ez du bere burua ikusten, igande honetako ebanjelioan agertzen zaigun Bartimeo itsuarengan! Bartimeori buruz ematen zaizkigun ezaugarri laburrak oso adierazgarriak dira: ez du ikusten (itsua da), ezinean eserita dago (ez du ahalbiderik), bide-ertzean dago (partaidetzatik baztertua) eta eskale hantxe (ezer ez daukanak eskatu egin behar).

Nor ez gara biltzen argazki horretara? Gauzak eta gertaerak Jesusen ikuspegitik begiratu ezinik gabiltza; askotan, gizatasun oinarritzko batetik ere ez. Gauzen sentidua eta muina aurkitzeko biderik sumatu ezinda. Benetan itsu gaude edo gabiltza.

Geure habi beroetan etzanda gaude; giro gozo eta kuttuna eraiki dugu eta, bestetarako indarririk ezean, bakoitza geure ongizatean eserita; utz gaitzatela bakean, mesedez. Bide-ertzerantz baztertu dugu geure burua; ez dugu parte hartu nahi edo ezin dugu parte hartu, hiria edo Eliza eraikitzen. Zirkulaziotik kanpo! Eta eskale, beti eskale:

zoriona behar dugu, argia behar dugu, sentidua behar dugu, beste zerbait behar dugu, askotan beste zerbait hori zer den ez badakigu ere. Bartimeoren pareko, beraz!

Gure bizitzaren baldintza hauetan, zer egiten du Bartimeo itsuak? Haren jokaeraren ezaugarriak ere oso adierazgarriak dira. Belarria irekita darama; ikusi ez du egingo, baina erne dago eta berehala ohartzen da Jesusen hurbiltasunaz. Berehala garrasi egiten du, bere ezinari ateratzen zaion garrasi gorri eta ozena. Ez du barru-barrutik ateratzen zaion garrasi hura inork isilaraziko. Asko ari da jokutzen.

Eskabide oso xumea, baina aldi berean betea, egiten du: errukia eskatzen dio, gupida. Jesusen deiari esperantza betean erantzuten dio. Bere ezinean berotzeko zeuzkanak ere eragozpen gertatzen zaizkio eta denak airean botatzen ditu, Jesusengana hurbiltzeagatik. Jesusengana hurbiltzen da. Eta hori guztia sakoneneko otoitz bihurtzen zaio: Ikustea, horixe nahi du, ikustea!

Jesusek, bere aldetik, hasteko, dei egin dio eta, gero, itsuaren fedeari egintzaz erantzuten dio. Bilatzaile egarrituari ur bizigarritz, argiz, erantzuten dio Jesusek. Ebanjelioko Jesus horrelakoxea da, izan.

Ebanjelio-atal honek, Bartimeoren pasadizoak, bide bat proposatzen du. Gure bizitzan bizi dugun bilaketak bide bat egin behar du. Ez da nahikoa, geure buruarekin ados ez egotea edo gustura ez sentitzea. Geure barruko beharrari erantzun egin behar diogu edo, gutxienez, erantzuten saiatu. Jesus gure ondoan pasatzen da eta berak ez du inor bere bidera etortzera behartuko. Jesus ez dator indarrez edo derrigortuz. Jesus geure ondotik pasatzen da beti ere.

Horrek, beraz, adi egotea eskatzen digu. Gure barruko egarriak uraren soinua aditzen jakin behar du. Jesus ez dakigu noiz eta nola pasa daitekeen ondotik; erne egon behar da. Erne egon eta beharra garrasi bihurtu. Geure ametsa eta nahia azaldu. Hark dei egiten

digunean, eragozpen guztiak alde batera bota. Jesusenganako saltoak ustetsua izan behar du. Hemen ez du balio erdipurdikeriak. Hark argi berria eman diezagukeela sinetsi eta eskatu. Jesusek ez dio gure sinesmen behartsuari ezetzik emango.

Hau dena bizitza pertsonalera bildu daiteke, eta hori da inportanteena. Gizarteko bizitzara ere bai. Hainbeste egarririk erretzen gaitu! Ezin dugu elkar ikusi, bakea egiteko. Ezin dugu besteen beharra sumatu, laguntzeko. Eliz elkartearen bizimolde apalera ere tolestatu daiteke prozesu hau. Hainitsu gaude, zer egin behar dugun ikusi ezinik. Berrialdia nahi dugu, baina ez dakigu zer eta nola berritu. Ez zaigu erraza gertatzen une honetan erabaki sendo baten saltoa egitea.

Baina, igande honek esperantza ematen digu itsu guztioi, etsi guztioi. Gutxienez jakingo dugu Jesusek berrialdia ekar dezakeela, eta hori poz-iturri gertatzen da. Hortik aurrerako prozesua nola bideratu, bakoitzaren erabakiaren esku dago. Eta gizartearen erabakiaren esku. Eta eliz elkartearen erabakiaren esku. Ikusten hasteko bidea ebaki eta eskaini digu Jesusek.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunari egindako otoitzak Berak bihotz onez entzuten dituela jakinik, egigun otoitz apaltasunez:

- Jaunak indarra eta argitasuna eman diezaien Jose Ignazio gure gotzainari eta Elizako artzain guztiei. Eska diezaiogun Jaunari.
- Neurrigabeko ezberdintasunak gairiditurik, herrietako arduradunak denon ongizatearen alde saia daitezten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Sufritzen duten guztiak kristau-elkartearen bidez presente egiten den Jaunaren indarra eta laguntza izan dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.

—Hemen bildu garenok eta gure etxeko eta adiskide guztiok, itxaropenez eta elkarri on eginez bizi gaitezen. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, itsuen argia eta nahigabetuen poza zarena, Zure Semearengan eman diguzu onginahiaren iturria; entzun Zure familia honen otoitzak eta egizu Kristorekin bat eginik zugarako bidea aurki dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure sakramentuok, Jauna,
egin dezatela guran beroiek adierazten dutena,
orain irudipean egiten duguna
gero egiaz eta osorik har dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**